

**BILTZAR NAGUSIA**

Uztaritzen, 1996ko martxoaren 16an

***EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA***

**1995ko EKINTZEN  
BILDUMA**

**E.K.E./I.C.B. - Lota Jauregia - K.P. 6 - 64480 UZTARITZE**

**Tel 59.93.25.25 - Fax 59.93.06.84**

# AURKIBIDEA

---

❖ 1995eko ekintzen bilduma	
— Sorkuntza	4
— Hedapena	8
— Formakuntza/Aholku/Geroasmakuntza	17
❖ Prentsan gaindi	19

**Bost urte hauetan,  
euskarra  
eta euskal kulturaren zerbitzuko**

1901ko Legearen araberako elkartea bezala onartua, Euskal Kultur Erakundea, 1990ko abuztuaren 1ean sortu zen.

Euskararen eta euskal kulturaren bultzatzeko muntatua, bere ekintza Ipar Euskal Herri osora (Lapurdi, Nafarroa-Behere, Zuberoa probintzia historikoetara) zabaltzen du.

Euskal Kultur Erakundea diruz laguntzen dutenak : Estadoa (Kultur Ministeritza), Akitania Lurraldeko Kontseilua eta Pyrénées-Atlantiques departamenduko Kontseilu Orokorra. 1990ean, Euskal Kulturaren sustengatzeko sortu Herrien Arteko Sindikata (141 herri elgarretaratzen dituenak), bere diru laguntzaren gainera babes garrantzitsua ekartzen dio. Gaur egun, 65 elkartea Euskal Kultur Erakundearen partaide dira.

Euskal Kultur Erakundea sail hauetaz arduratzen da : euskal hizkuntza bultzatzea, literatura eta argitalpena, antzerkia eta bertsularitza, entzun-ikus produkzioa, dantza, kantu eta musika, ondarea, artegintza. Kultur ekintzak arlo desberdinetan sustatzen ditu : artistiko sorkuntza, obra berrien hedapena, animazioa, kultura munduko langileen formakuntza.

## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA

---

### ADMINISTRAZIO KONTSEILUA (\*) :

#### Euskal elkarteen ordezkariak :

Jakes ABEBERRY Jauna, Erramun BACHOC Jauna, Peio CEDARRI Jauna, Piarres CHARRITON Jauna, Filgi CLAVERIE Jauna, Pantxoa ETCHEGOIN Jauna, Martine ETCHEBARNE Anderea, Terexa SEGUIN Anderea.

#### Zuzenbidezko kideak :

##### a) Euskal kultura sustengatzen duen Herriarteko Sindikata

- Renaud D'ELISSAGARAY Jauna, Baionako Zinegotzia,
- Peio SETOAIN Jauna, Aldudeko Auzapeza.

##### b) Pyrénées-Atlantiques-etako Kontseilu Orokorra:

- Jacques COUMET Jauna, Lehendakariordea, Hazparneko Kontseilarri Orokorra,
- Jean-Pierre DESTRADE Jauna, Hiriburuko Kontseilarri Orokorra.

##### c) Akitania Lurraldeko Kontseilua :

- Maurice TOURATON Jauna, Lurraldeko Kontseilarria,
- François MAITIA Jauna, Lurraldeko Kontseilarria.

##### d) Estadoa :

- Jean-François DENIS Jauna, Pyrénées-Atlantiques-etako Prefeta edo haren ordezkaria,
- Bernard Lemaire Jauna, Baionako Suprefeta,
- Jean-Michel LUCAS Jauna, D.R.A.C.eko buruzagia.

#### Pertsonalitate kalifikatuak :

- Ramuntxo CAMBLONG Jauna, Euskal Herriko Garapen Kontseiluko Lehendakaria,
- Vincent DUCOURAU Jauna, Bonnat Erakustokiko zuzendaria,
- Jean HARITSCHELHAR Jauna, Euskaltzainburua,
- Beñat OYARÇABAL Jauna, Euskaltzaina.

#### Administrazio Kontseiluan parte hartzen gomitatu pertsonalitate kalifikatua :

- José Maria MUÑOA GANUZA Juana, Eusko Jaurlaritzako lehendakaritzako aholkularia.

(\*) 1996.eko martxoaren 16eko Ohizko Biltzar Nagusian, euskal elkarteen ordezkari berrien hautatzea egina izanen da.

Biltzar Nagusiaren ondotik, Zuzenbidezko kideak eta elkarteen ordezkariak elkartuko dira 4 pertsonalitate kalifikatuen hautatzeko eta horrelaxe Administrazio Kontseiluaren osatzeko, halaber bulego berriaren izendatzeko.

## **BULEGOA :**

Lehendakaria :	Erramun BACHOC Jauna
Lehendakariorde lehena :	Jacques COUMET Jauna
Lehendakariorde bigarrena :	Terexa SEGUIN Anderea
Idazkaria :	Beñat OYARÇABAL Jauna
Diruzaina :	Pantxoa ETXEGOIN Jauna
Diruzainordea :	Filgi CLAVERIE Jauna

## **PROFESIONAL TALDEA :**

Zuzendaria :	Txomin HEGUY Jauna
Zuzendariordea :	Daniel LANDART Jauna
Euskal hizkuntza eta ondarea arduraduna :	Terexa LEKUMBERRI Anderea
Administrazio, idazkaritza, ongi etorria :	Maddalen ERROTABEHERE Anderea Monique MONGABURE Anderea Pierre CORDOBA Jauna
Egonliarrak :	Xabi ITZAINA Jauna Battita ELISSALDE Jauna

# ♦ SORKUNTZA

## □ ENTZUN-IKUSGAILUAK □

### “HARRIAN HERRIA”.

Euskal Kultur Erakundeak eta 16 Arts Production argitaletxeak ekoiztua, Akitaniako Kultur Ekintzen Zuzendaritzaren laguntzarekin.

Filma hori giltza bat da. Giltza preziagarri eta beharrezkoa segur, baina hogeita hamar minutuz ez dira Iparraldeko gauza guziak barnatzen ahal. Jadanik aipatzea bera ez dea ongi ? Eta hain zuzen filma horretan, denak aipatuak dira gutiaski. Ez da kulturan mugatzen. Zeren kultura, errrotik lotua baita ekonomiari. Horra zergatik, filma horrek erakusten duen Iparraldeko jendea nola bizi den eta zertarik.

Hiru zati ditu. Hiru probintzien berezitasunak agerteko ote ? Berezitasunak bai, baina ez probintziaka baizik eta eskualdeka. Lehenik, mendialdeko bizia erakusten digu, gero ordokikoa eta azkenik kostaldekoa.

Eta erran genezake irudiak berak mintzo direla ! Hain dira ederrak eta hunkigarriak. Euskal Herriaren gaurko itxura den bezala erakutsiz, ikusten ahal ditugu hainbat ongi doazen sektoreak baina ere bihotz-urragarri diren lantegi hetsi eta etxe hustuak...

Hala ere, orokorki hartuz, erran dezakegu filma hori baikorra edo optimista dela. Hori ikusi ondoan, atsegin handi batek betetzen zaitu eta bizitzeko errabiak gaina hartzen ditzu.

1995.eko ekainaren 30ean, Baionako Komertzialdegian, anitz jenderen aitzinean presentatua izan zelarik Txomin Héguy Jaunak erran zuen bezala, filma horrek bi helburu ditu :

- emozioneari lehentasuna emanet baina pedagogiko neurria menderatu gabe, “Harrian Herria” dokumentu horrek ahal bezainbat jende hunki behar du : gu bakoi txarentzat egina baita ; halaber eskola, kultur etxe, erakustoki, hiri liburutegi, hotel, gidalekuetako ordezkarri eta buruzagientzat tresna balios bat izanen da ;
- filma hori, molde askotara erabilia izan daiteke, edo den bezala hastetik buru ikusiz edo artetan geldiaraziz, gai baten edo bestearen hobeki barnatzeko (hori eskoletan bereziki) ; balia daiteke ere mintzaldi baten hastapenean... hots, edozein kasutan biziki laguntzen ahal gaitu, dela soziologia, ekonomia, kultura sailetan...

Filma denboran, ahots bati esker baitezpadako xehetasunak jakiten dira baina ez da xeheterietan sartzen, solasak ez dezan iduria irets. Lau hizkuntza desberdinietan zabaldua da : euskaraz, frantsesez, espainolez eta inglesez.

Harrian Herria, Ipar Euskal Herria, behakoak :

Ekoizpenaren arduraduna : Daniel Hegoburu. Gidoia eta textoak : Etienne Gary, Txomin Héguy. Laguntzaileak : Daniel Landart, Terexa Lekumberri. Musika egilea Pascal Gaigne. Jokolariak : zizelkaria : Jean Escaffre, ikaslea : Maialen Péry. Zuzendaria : Etienne Gary.

*Ekoizpena : Euskal Kultur Erakundea eta 16 Arts Production*

## □ “XURRUTAK” □

### EUSKARAZKO IRRATI KULTUR EMANKIZUNA

Urtarriletik urri ondar arte, **Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza**, hiru euskal irratieta zabaldu da, ostirale goizetan 11 orenetarik eguerdi arte.

Emankizuna 4 zati nagusitan banatzen da :

- 1) Aurkezpen orokorra eta kronika,
- 2) Egungo kulturgintzari lotuak diren gaiak,
- 3) Gai nagusia, 30 minutaz,
- 4) Idazleen hitza. Gertakariak.

Iraupena : oren bat.

— Egilea : Lucien Etxezaharreta - Soinubiltzailea : Aitz Amilibia.  
— Jatorrizko musikaren sortzailea : Niko Etxart.

*Egilea : Euskal Kultur Erakundea*

## □ ANTZERKIA □

### INDIA BELTZAK

Pantzo Hirigaray-ek idatzia, lau zati dauzkan antzerki hori Xirrixti-Mirrixti antzerki taldeak apailatua du eta 1983an sortuz gerotzik, bere bosgarren ikusgarria eskaintzen digu. Ixtoria, mende honen hastapenean iragaiten da, Euskal Herri barneko jauregi batetan. Etxekandereak bere senarra idurikatzen du. “India Beltzak” deitu erresumara joana omen da, duelako bi urte hauetan... Antzerki irringarria... eta korapiloak, dotzenan hamahiru ! Zuzendariak dira : Olatz Beobide eta Eneko Olasagazti, Donostiar antzerkilari profesionalak. Jokolariak : Yvonne Pochelu, Bernadette Oxandabaratz, Pierre Larre, Kattalin Sallaberry, Philippe Mayté, Battitta Duhalde, Hélène Charritton, Pantzo Hirigaray, Battitta Arotzarena, Pantxo Etxegoin. Teknikaria : Patrick Mastoumecq.

Antzerki hori, lehen aldikotz, Donibane-Garazin emana izan zen 1995eko urriaren 15ean. Gerotzik talde hori ibili da : Baigorri, Oragarre, Baiona, Aiherra, Sara, Azpeitia, Itsasu, Donamartiri, Aldude, Beskoitze, Kanbo, Donapaleu, Heleta, Miarrizte, Uztaritze herriean.

*Partaidea : Xirrixti-Mirrixti*

## □ HAURRENTZAT LITERATURA □

### XIRRIXTA

Agerkariaren hilabetero plazaratzea.

1992an sortua, Xirrixta agerkaria, 4 eta 7 urte arteko haurrentzat asmatua da. Hastapenean Euskal Kultur Erakundeak osoki kudeatua, 1994az geroz, “Xirrixtazaleak” elkardea da, euskara hutsean egina den agerkari horren arduraduna, sorkuntza eta diru mailan.

Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak proposaturik, Administrazio Kontseiluak 1994an erabaki zuen proiektu garrantzitsu horren hiru urtez brauki laguntzea.

11 ale agertu dira 1995ean, udako zenbakiak uztaila eta agorrila biltzen zituela. Gainera, hiru hilabetero, aitamei buruz egin gehigarri bat plazaratzen da (hiru hizkuntzatan) Xirrixta hobeki baliatua izan dadin aholkuak emanet, horrelaxe irakurtzeko plazerra eta familiako euskal giroa handituz joan daitezen.

*Partaidea: Xirrixtazaleak*

## Ipuin sorkuntza. "EUSKAL XAPELGOA" lehiaketa.

1995/1996 ikasturtea.

1995. urtean lehiaketa horren oinarriak finkatuak izan dira.

Ikas (Pedagogia Zerbitzua) eta Euskal Kultur Erakundeak, apailatzen dute ipuin lehiaketa bat haur eta gaztetxoentzat eta hona nola iraganen den.

→ Lehen mailakoentzat : koloriatzea eta idaztea

### 1) 5, 6 eta 7 urteko haurrek

Claude Labatek egin marrazki bat koloriatu edo margotu behar du haur bakoitzak, eta gero ipuin baten istorioa asmatuko da klasean. Ondotik, ipuina zintan grabatuko dute. (Iraupena : 4 - 5 minutakoa).

### 2) 8, 9 eta 10 urteko haurrek

Claude Labatek egin 3 marrazkiren arabera haur bakoitzak ipuin bat asmatu beharko du baina marrazkiak ere koloreztatuko ditu. Azpimarra dezagun, lehen lehenik, idazkera dela konda.

Saria : irabazlearen ipuina eta 3 marrazki ederrenak lau koloretan inprimatuko dira, lehiaketarendako baliatu den gisa bereko orri berean.

Lehiaketa horretan parte hartu duten guziek eskuratuko dute ale inprimatu bat.

→ Kolejio eta lizeotako gaztetxoek :

Proposatuak izanen zaizkion bi gaietarik bat hautatuko du ikasle bakoitzak eta horri doakion ipuina asmatuko.

- 11 eta 12 urtekoentzat, ikaslearen idazlana 300 eta 700 hitzen artekoa izanen da.

- 13 eta 14 urtekoentzat, ikaslearen idazlana 700 eta 1000 hitzen artekoa izanen da.

- lizeokoentzat, ikaslearen idazlana 1000 hitzetik goragokoa izanen da.

Epeak : Martxoko oporrak aitzin lan guziak bilduko dira. Epaimahaiaren erabakiak 1996.eko Bazko irian jakinen dira.

*Egileak : Ikas Pedagogia Zerbitzua  
eta Euskal Kultur Erakundea*

## □ HELDUENTZAT LITERATURA □

### Maiatz literatura agerkaria

Hiru ale atera dira. Poesia, ipuin, literatura kronikak, horra zer irakur daitekeen literatura agerkari horietan eta gaurko euskal idazleen lanen ondoan, aurkitzen dira ere beste hizkuntzetan idazten dutenen itzulpenak.

Aldi bakoitz 500 aletan agertzen da Maiatz.

*Partaidea : Maiatz*

### "Herria eta Kultura" kultur gehigarria

Urtean zehar, 4 orrialdeko lau gehigarri, euskara hutsez Euskal Kultur Erakundeko talde profesionalak osoki prestatuak, kultur bizitzako gai nagusiak aipatuz eta "Herria" astekarierez bidez zabaldua.

Agerpenen egunak : apirilaren 6a, uztailaren 6a, urriaren 12a eta abenduaren 17an.  
Zenbaki bakoitzetik ale zenbait gelditzen da Euskal Kultur Erakundean.

*Partaidea : Herria*

## □ ONDAREA □

### "DANTZAZ ELE"

"Garaztarrak" dantza taldeak berrogoi urte betetzen zituela eta, karia horren ospatzeko erakusketa bat apailatua izan da Baxe-Nabarrako kabalkada eta besta-berriak gaitza hartuz. Horren egiten parte hartu dutenak : Denise Olhagaray eta Antton Lucu ; Donibane-Garaziko Citadelle kolegioko gazteak aldiz ari izan dira argazki biltzen. Garaztarrak taldeko Michel Aurnague, Philippe Mayté eta Pierre Inchauspé jaunak bai eta Gwenaëlle Bidondo andera artoski bermatu dira erakusketa hori ahal bezain ontsa kausitzeko.

*Partaideak : Garaztarrak eta Euskal Dantzarien Biltzarra*

### "EUSKAL OPERA - SOINU ETA IRUDI"

Euskal operaren urrats garrantzitsuenak aurkeztuak dira, hiru hizkuntzatan egin erakusketa horretan. Garai batetako apaindura eta jantziak ikus daitezke. Halaber opera batzuetan baliatu partizone eta libretak.

Erakusketa horren zuzendari artistikoa : Nathalie Morel Borotra.  
Teknikalaria : Gwenaëlle Bidondo.

*Partaidea : Sorgin Ots*

# HEDAPENA

## □ LITERATURA ETA ARGITALPENA □

### “Euskal Herriko idazleen XII. Biltzarra”

Saran apirilaren 17an, astelehenkari. 140 idazole, ikerlari, marrazkilari. Eusko Ikaskuntzari esker lau liburutan berriz argitaratua izan den Aita Donostia musika munduko adituaren obraren aurkezpena. Parte hartu dute : Ixabel Ajuriaguerra andereak, Michel Aranburu eta Jon Bagues jaunek, halaber Maddi Oyhenart, Beñat Achiary, Johañe Barcos, Imanol, Michel Etchecopar, kantari-musikariekin.

*Tokiko partaidea : Sarako Ekimen Elkartea*

### Bizkaia - Durangoko Liburu eta disko azoka

Abenduaren 6tik 10a arte, Euskal Kultur Erakundeak 5 mahai alokatu ditu eta eskuprograma bat plazaratu, Iparraldeko ekoizpen guziaren presentatzeko. Lehen aldikotz, aurten, hegoaldean argitaratu liburu eta diskoak ere gure zerrendan sartu ditugu egileak iparraldekoak ziren ber. Horrela, gure eskaintza nasaiagoa zen eta gure hiru probintzietako sortzaileen obrak hobeki agertzen ziren.

*Antolatzailea : Euskal Kultur Erakundea*

### Euskal liburuak Hiri Liburutegientzat

Eusko Jaurlaritzako kultura sailak, Europako Elkarteko Hizkuntza Gutxituen Batzordeko programaz baliatuz, Iparraldeko 22 liburutegiri 220na liburu eskaini dizkie, orotara 4.840 liburu.

Euskal hizkuntzaren onerako egina izan den urrats garrantzitsu horrek merezi zuen oihartzuna ardiets zezan, Euskal Kultur Erakundeak bilkura bat apailatu du apirilaren 8an, larunbat goizeko 11etan, Uztaritzeko Lota Jauregian.

Euskal Kultur Erakundeak gomittauak zituen 22 liburutegi horik kokatzen diren herrietako auzapezak bai eta liburutegi arduradunak halaber bere administrazio kontseiluko kideak eta dudarik gabe prentsa osoa.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailburua den Mari-Karmen Garmendia anderea ere etorri zen.

Hona hemen herrien zerrenda :

Bidarte, Miarrizte, Senpere, Azkaine, Kanbo, Maule, Baigorri, Donibane-Garazi, Baiona, Donapaleu, Urruña, Milafranka, Angelu, Hazparne, Ziburu, Donibane-Lohizune, Hendaia, Uztaritze.

Bestalde, Mailegu liburutegia, Baionako Unibertsitateko Liburutegia, Xalbador Ikastegia eta Ikas Pedagogia Zerbitzua, horra hor beste 4 toki liburu horiek errezebitu dituztenak.

*Antolatzailea : Euskal Kultur Erakundea*

## Euskal liburuak kirolaz

**Ezpeletan, uztailaren 3an** (Futbol Aldalekuko biltokian).

Gracie Florence andere axuantaren lehendakaritzapean, eta han zirela ere Jean-Michel Cabos, Gazteria eta Kirolak departamenduko ikuskaria bai eta Partié jauna (Hervieu jaunaren partez jina) halaber Peio Sarratia eta Peio Dospital, 3 liburu hauek aurkeztuak izan dira eta han zirenei eskainiak :

- “Futbol entrenatzailea”, Christian Bourrel eta Maurizio Seno jaunek idatzia, eta euskaratua izan dena,
- “Kirol entrenamenduaren oinarriak”, Inazio Oiartzabal eta Aitor Zinkunegi jaunak idatzia,
- “Kirolkidea” U.Z.E.I. erakundeak argitaratua, Alberto Aguirreazaldegi Jaunaren zuzendaritzapean.

*Antolatzailea : Euskal Kultur Erakundea  
Ezpeletako Herriko Etxearen laguntzarekin*

## “Idazleak eskoletan”

**Apirlaren 10ean, Donibane-Lohizunen**

Euskara irakasten duen Denis Granet jaunak gomitaturik, Daniel Landart izan da apirilaren 10ean, Donibane-Lohizuneko Sainte-Marie kolegioan eta hango ikasle batzurekin mintzatu da “Aihen Ahula” bere liburuaz.

## LITERATURA ARRATSAK

“Hitz eta solas” sailean, hiru mintzaldi antolatuak izan dira.

—> Martxoaren 28an (asteartea) - Uztaritzeko Landagoien gelan

Hamar urte Pierre Lafitte jaun kalonjea joan zitzaigula eta, haren bizia eta obra goraipatu dituzte Xipri Arbelbide, Jean Haritschelhar, Piarres Charritton eta Beñat Oiharçabal jaunek. Piarres Aintziart jaunak kudeatu du mahai-ingurua.

—> Apirlaren 4ean (asteartea) - Donibane-Lohizuneko Ducontenia gelan

“Itsasoa eta mendia, bien artean : Donibane”. Horra Iratzeder olerkariak hautatua zuen gaia bere mintzaldirako. Haren poesia zenbait irakurri dituzte Kattalin Totorika eta Daniel Landartek, Txomin Héguy-k aldiz lau kantu ematen zituelarik. Luzien Etzezaharretak kudeatu du arratsa eta hastapenean Xanpun-ek bertsu ederrak bota zituen Iratzeder Donibandar seme mistikoaren ohoretan.

—> Apirlaren 11an (asteartea) - Senpereko Denen Etxean

“Ideaia eta emozioa” gaiaren itzulian mintzatu dira : Jokin Apalategi, soziologoa, Unibertsitateko irakaslea eta idazlea, Eñaut Etxamendi, olerkaria, kantaria eta idazlea, Xan Irigaray, idazlea (Txomin Agirre Euskaltzaindiaren Saria) eta entseiularia. Emilio Lopez-Adan jaunak aurkeztu zuen arratsa.

*Partaidea : Maiatz Elkartea*

## BERTSOLAMINTZA

—> Ekainaren 6an (asteartea) - Uztaritzeko Idekia gelan

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko "Forum" taldeak proposaturik mintzaldia, Jon Sarasua eta Andoni Egañarekin. Bertso paperen garantzia eta txapelketen eragina bertsolaritzan, horra zer aztertua izan den Daniel Landartek kudeatu arrats horretan.

*Partaidea : Bertsularien Lagunak*

## AXULAR ETA DENBORA

Sara, Azkaine eta Zugarramurdiko hiru elkarteeek antolaturik "hilabete kulturala" abenduan iragan da. Gai nagusia : Axular. Hamazazpigarren mendean bizi izan zen Sarako erretor famatua eta euskal literaturan arras ezagutua den "Gero" liburua idatzi zuen.

Bost mintzaldi emanak izan dira Azkaineko Bil-Bokian.

- Abenduaren 2an : "Axularen bizia eta lana". Hizlari : Patxi Altuna, euskaltzaina,
- Abenduaren 8an : "Erromako Eliza eta Euskal Herria".  
Hizlari : Piarres Xarriton, euskaltzaina,
- Abenduaren 15ean : "Euskal sorgintasunaren mundu-ikuspegia". Hizlari : Joxemartin Apalategi, antropologoa.
- Abenduaren 23an : "Axular-en euskara nolakoa zen eta zer dugun Axular-en idazmoldetik ikasteko egun". Hizlari : Beñat Oyarzabal, euskaltzaina.
- Abenduaren 27an : "Axular : izitzeko denbora". Hizlari : Xan Irigaray, entseicularia.

*Partaideak : Altxa-Lili, Etxola eta Akelarre Elkarteak*

## □ BERTSULARITZA □

1995ean, Euskal Kultur Erakundeak lau bertso saio antolatu ditu bere ohizko partaideekin :

### Otsailaren 19an, Saran

Igande arratsaldeko 4etan, 6 bertsolari hauek aritu ziren : Ernest Alkhat, Bittor Elizagoien, Sebastian Lizaso, Maddalen Lujambio, Jon Sarasua, Xanpun.  
Gai-emailea : Michel Itzaina.

*Tokiko partaidea : Olhain-Ikastola Elkarteak*

### Martxoaren 26an, Miarritzen

Biarritz-Culture elkartearrekin batera antolatua.  
"Bi harriz, lau xori" kultur astearen barnean, igande arratsaldez, bapateko bertsoak eta bertso jarriak izan ziren ohoretan. Lehen zatian : Ezponda eta Xanpun.  
Gai-emailea : Daniel Landart.  
Ondotik : Andoni Egaña bere musikariekin.

*Tokiko partaidea : Biarritz-Culture*

### Irailaren 17an, Donibane-Lohizunen

Xanpun bertsulariari omenaldia. Bertsulari adiskide asko etorri da.  
Arratsaldean, Jai-Alaiean, bertsu saioa : Andoni Egaña, Jon Enbeita, Jon Sarasua eta Sebastian Lizaso.  
Gai-emailea : Michel Itzaina.

*Tokiko partaideak : Musikari eta Bertsularien Lagunak Elkarteak*

### **Azaroaren 11an, Urepelen**

Urte guziz, Xalbador Eguna ospatzen dela eta, aurten bost bertsolari gazte gomitatuak ziren : Eztixu Arozena, Jesus-Mari Irazu, Unai Iturriaga, Haritz Lopategi eta Jokin Sorozabal.

Gai-emailea : Pantzo Hirigaray.

Lehen zatian : Michel Ducau eta Carolin Phillips kantari-musikariak.

*Tokiko partaidea : Xalbador Elkartea*

### **Abenduaren 3an, Zuraiden, Kosta-Garayan**

Bertsolariak : Ernest Alkhat, Mixel Aire-Xalbador, José-Luis Gorrotxategi, Jean-Louis Laka, Haritz Lopategi.

Gai-emailea : Daniel Landart.

Lehen zatian : Marie-Hélène Estecahandy eta Txomin Héguy, kantariak.

*Tokiko partaidea : Foyer Rural Elkartea*

## **□ ANTZERKIA ETA IPUINA □**

### **Martxoaren 23an (osteguna) - Miarritzeko "Le Colisée" gelan**

Antzerkia "Hala bazan, ez bazan sar dadila kalabazan", In Fraganti talde profesionalak emanik.

*Tokiko partaidea : Biarritz Culture*

### **Maiatzaren 5ean (ostirala), Aiherran**

"Apanize" Koldo Amestoy (kondalaria) eta Pascal Gaigne (musikaria).

Joko-zuzendaria : Edi Naudo.

*Tokiko partaidea : Eihartzea Kultur Etxea*

### **Maiatzaren 30ean (asteartea), Miarritzeko "Le Colisée" gelan**

"Galarroxkak" eskolako euskal antzerki eguna.

Antzerki sorkuntzak agertu dituzte : Donibane-Lohizune, Donibane-Garazi, Uztaritze, Hendaia, Baiona eta Miarritzeko haurrek.

Orotara : 146 ikaslek parte hartu dute elgarretaratze horretan.

*Partaideak : Biarritz Culture eta Ikastolak*

### **Ekainaren 10ean (larunbata), Aiziritzen**

"Antzerki ttipi". Heziera Ekintza Proiektua euskaraz. Parte hartu duten eskolak : Heleta, Bitirina, Domintxine, Ilharre, Bunuzeko lehen mailakoak.

Kudeatzaile profesionala : Michel Foucher.

*Tokiko antolatzailea : Haize Berri*

### **Urriaren 28an (larunbata), Bastidan**

"Inessa de Gaxen", Fernando Doménech Rico-k egina (zati batzu Gerardo Markuletak euskaratuak). Antzerki horren apailatzeko bi talde profesional elkartu dira : Bordeleko Taffurs-en Teatroa eta Hondarrabiako Bai Teatroa.

*Tokiko antolatzailea : Ekimen Elkartea*

### **Azaroaren 18an (larunbata), Heletan**

"Clovis eta Marinette", Francis Basteroten obra (Nelly Challet-ek euskaratua), Bordaxuri taldeak emanik.

*Tokiko antolatzailea : Eihartzea Kultur Etxea*

## □ OHIDURAZKO DANTZA □

**Maiatzaren 8an (astelehena), Atharratzeko pilota plazan**  
**Dantzari Tiki : 15 urtez petikako 1.500 haur dantzarien elkarretaratzea.**

*Tokiko Antolatzailea : Euskal Dantzarien Biltzarra Federazioa*

**Irailaren 23an (larunbata), Baigorriin**  
**Herri Dantzari : Iparraldeko dantzari helduez osatu taldeen elkarretaratzea.**

*Tokiko antolatzailea : Euskal Dantzarien Biltzarra Federazioa*

**Urriaren 8an (igandea), Arrangoitzen**  
**Mutxikoaren Eguna : dantza jauzien eguna.**

*Tokiko antolatzailea : Euskal Dantzarien Biltzarra Federazioa*

**1996.eko urtarrilaren 13an, Hiriburun**  
**Jotak eta fandagoak : dantza eta kantu emanaldia.**

*Tokiko antolatzailea : Euskal Dantzarien Biltzarra Federazioa*

## □ KANTUA □

**Martxoaren 11an (larunbata), Donibane-Lohizunen**

Korrika dela eta, "Jalgi hadi plazarat" kantaldian parte hartu dute besteak beste : Peio Serbielle, Beñat Achiary, Anje Duhalde, Pier Pol Berzaitz, Eltzegor taldeak bai eta antzerkilariek ere, Koldo Amestoy eta musikariek.

*Tokiko antolatzailea : A.E.K.*

**Martxoaren 25ean (larunbata), Hazparnen**

Pantxo Bergara, Txakun eta Mister Saguak taldeen diskoen plazaratzea ospatzeko, kontzertu bat antolatua izan da. Martxoaren 21ean, Baionako Moderne Trinketean, prentsurreko bat egiten zelarik horietaz mintzatzeko.

*Tokiko antolatzailea : Z.T.K.*

**Apirilaren 2an (igandea), Aiziritzen**

"Haurren Kantu Xapelketa" : Baxe-Nabarroko finala-erdia.

*Tokiko antolatzailea : Euskal Kantu Xapelketa  
eta Haize Berri*

**Maiatzaren 20an (larunbata), Mugerren**

"Haurren Kantu Xapelketa" : Lapurdiko finala-erdia.

*Tokiko antolatzailea : Euskal Kantu Xapelketa  
eta Ezpela Elkartea*

**Maiatzaren 28an (igande), Altzürükün**

"Haurren Kantu Xapelketa" : Xuberoko finala-erdia.

*Tokiko antolatzailea : Euskal Kantu Xapelketa  
eta Uhaitza*

**Uztailaren 13an, (ortzeguna), Kanboko A.I.E.C. gelan**  
Kontzertua, Ainhoako Atsulai taldearekin.

*Tokiko antolatzailea : Accords*

### **Agorrilaren 11an (ostirala), Bunuzen**

“Intxauzetako Sorroak” : kontzertua : Peio Ospital, Caroline Phillips eta Michel Ducau, Beñat Achiary , Cité de la Truc, bai eta Miguel Angel Estrella.

*Tokiko antolatzalea : Inxauzeta*

### **Urriaren 8an, Hazparnen**

“Eihartza Eguna” : Peio Ospital, Caroline Phillips eta Michel Ducau, Leinua taldea eta tokiko beste kantari eta musikari batzu.

*Tokiko antolatzalea : Eihartza*

### **Urriaren 29an (igandea), Aldudeko elizan**

Manex Pagola kantatuz : Errezitala horretan parte hartu dutenak : Erramun Martikorena, Peio Ospital, Angèle eta Solange Añorga, Magali Zubillaga, Joseph Lafitte, Guy Saldubéhère, Xalbador eta Ihidoy, Aldudeko haurrak, Oilandoi taldea, Mikel Erramuzpe, Iñaki Maritxalar. Aldudarrak Batasuneko Entzunikus taldeak emanaldi hori bideoan hartu du eta interesatua denak eskura dezake.

*Tokiko antolatzalea : Aldudarrak*

### **Azaroaren 19an (igandea), Behaskanen**

1995.eko Haurren Kantu Xapelketan parte hartu haur batzuekin kantaldia.

*Tokiko antolatzalea : Haize Berri*

### **Abenduaren 29an (ostirala) Kanboko A.I.E.C. gelan**

Kontzertua : Kanboko Arraga korua, Iruñeko Coro Ametsa-ko haurrak, Peio Serbielle eta bere musikariak.

*Tokiko antolatzalea : Accords*

## **□ KORU KANTUA □**

### **Apirlaren 9an (igandea), Baionko Lauga salan.**

Euskal Herriko Haur abesbatzen elgarretaratzea.

Parte hartu dute : Burgaintziko Gazteak (zuzendaria : Colette Elichondo), Baigorriko Jean-Pujo ikastegiko korua (Denise Olhargaray), Hendaiako Irlandatz ikastegiko korua (Alain Ricau), Amikuzeko eskolako haur korua - Donapaleu (Serge Labescau), Iguzki Lore (Jo Maris), Angeluko “Endarra” ikastegiko haur korua (Christiane Dugène), Garaziko “La Citadelle” ikastegiko korua (Denise Olhagaray), Pabeko “Ecole Nationale de Musique”-eko korua (Pascalle Verdier), Eguzkilore Txiki Abesbatza (Irma Arroyo), Escolania Presentacion de Maria (Jesus Etayo), Olabide Haur Abesbatza (Josune Barandiaran), Santa-Maria-Zintzarri (Angel Alday), Coro Alboka (M. Elena Iturriagagoitia), Escolania A. Goikoetxea (Ma. Asun. Lanas), Izaro Abesbatza (Biotz Fradua Aguirre), Zamudiako kamarra korala (Iratxe Gezuraga), Coro Juan Bautista Gisasola (Maria Carmen Etxebarria), Alboka Txiki Abesbatza (Kristina Perez Abreu), Landarbaso Txiki Abesbatza (Iñaki Tolaretxipi).

*Tokiko antolatzalea : Iparraldeko Abesbatzen Elkartea*

### **Urriaren 27an (ortirala), Kanboko elizan**

Kontzertua : Arraga Abesbatza eta Sonore korua (Tolosako zeingehiagokan parte hartzen zuen taldea).

*Tokiko antolatzalea: Iparraldeko Abesbatzen Elkartea*

### **Azaroaren 12an (igandea), Hazparnen**

Iparraldeko Abesbatzen Elkarteko elgarretaratzea : Bizi Kantuz (Bardoze), zuzendaria : Jacques Laplume ; Boga Boga (Bidarte) eta Erro Bat (Baiona), zuzendaria : Jacques Clair ; Mendiz Mendi (Atharratze), zuzendaria : Jacky Rastoul ; Ensemble vocal de la Côte Basque (Angelu), zuzendaria : Renée Lannebère ; Nekez Ari (Donibane-Garazi), zuzendaria : Jo Maris ; Otxote Leinua (Hiriburu) ; Elhea (Donapaleu), zuzendaria : Serge Labescau eta Hegoaldeko bi abesbatz : Bilboko Orfeoia, zuzendaria : Francisco Gonzalez eta Salatxo Abesbatza (Orio, Gipuzkoa), zuzendaria : Marina Lerchundi.

*Tokiko antolatzalea : Iparraldeko Abesbatzen Elkartea*

## □ OHIZKO MUSIKA ETA KANTUA □

### XIRU 6 FESTIBALA, Goteinen :

#### Apirlaren 7an (ortzirala)

Mintzaldia / Emanaldia : "Abereak eta gizonak ohizko kulturan".  
Musikariak : Dominique Regef, Xavier Vidal, Poitiers-eko Cedefem-eko ikasleak,  
Ikerlariak : Marie-Barbara Le Gonidec, Claude Labat, Junes Casenave,  
Olerkariak : Bernard Manciet, Josean Artze, Manex Lanatura,  
Kantariak : Beñat Achiary, Jean-Michel Bedaxagar, Lucien Etchezaharreta (kasetaria).

#### Apirlaren 8an (neskenegüna) : "Belatxa" kontzertua

Parte hartzaleak : Jean-Michel Bedaxagar, JohaÑe Barcos, Maddi Oyhenart, Junes Chuburu, Michel Etxecopar, Josean eta Jesus Artze, Pedro Soler, Kepa Junkera, Said Nissia (Algeriako xirularia), Joël Merah, Stéphane Garin, Emmanuel Larrangé, Mizel Théret, Joana Etcheverry, Oldarrako eta Santa-Graziko dantzariak : Francis Burguburu eta Daniel Eyherabarren.

#### Apirlaren 9an (igandea) : Kantaldia / dantzaldia

Fandangotik gaskoin rap-era, blues eta xuberotar jauziatarik pasatuz :  
Bernard Lubat eta André Minvielle, Beñat Achiary, Paxkal Indo eta Txomin Larronde, Rap Fusion (Tolosa), Fermintxo Garaikoetxea, Pedro Soler eta Joël Merah, Kepa Junkera, Jean-Christian Galtxetaburu, Michel Etxecopar, Uztaritzeko txaranga eta gaiteroak.

*Tokiko antolatzailak : Abotia / Uhaitza*

#### Maiatzaren 17tik 19ra, Parisen

##### "Euskal musika, hiru egun euskal sorkuntzarentzat".

Kontzertuak : Txakun, Lin Ton Taun, Su Ta Gar, Erramun Martikorena, Oskorri.  
Mintzaldi-eztabaida Sorbonne Unibertsitatean : "Musikak Euskal Herrian : errealtitatea eta geroa". Hizlariak : André Gabastou, Mixel Etxecopar, Alain Darre, Jama Larraburu, Jean-Marie Ecay, Jean-Luc Berho eta Txomin Héguy.

*Tokiko antolatzaila : Parisko Euskal Etxea*

#### Agorrilaren 25 eta 26an, Uztaritze eta Donibane-Garazin

HERRI UZTA : Ohizko musika eta kantuaren 4. elgarretaratzea.

Kontzertuak : Caroline Phillips eta Mixel Duau, Maddi Oyhenart, Veus del Pirineu, Enrike Zelaia, Xuberuko xirulariak eta Alboka taldea.

*Antolatzaila : Euskal Kultur Erakundea*

*Laguntzaileak : Herri Soinulariak, Errobiko kaskarrotak eta Garazikus*

## □ ARTEGINTZA □

#### Otsailaren 24etik martxoaren 25era, Izurian

Marrazkiri : Euskal Herriko marrazkilarietan egin umorezko marrazkiak laborantza hartuz gaitzat.

*Partaidea : Haize Berri*

#### Maiatzaren 13tik 28ra, Donibane-Garazin

Artista bretoinak Euskal Herrian.

Jean-Claude Le Floch, Christov Varban, Arela Kalvez, Carnelo de la Pinto, Christian Pendelio artisten margo eta bernuzak.

*Tokiko antolatzaila : Lau Elkartea*

**Maiatzaren 6etik ekainaren 2ra, Mauleko Ondarearen Etxean**  
**Euskal Herriko pareta tindatuak.**

*Tokiko antolatzailea : Uhaitza*

**Ekainaren 15etik uztailaren 31ra, Hazparneko Eihartzea kultur etxean**  
**Antton Pocheluren eskulturak, J. Felix Igartuaren margoak.**

*Tokiko antolatzailea : Eihartzea*

**Ekainaren 24etik uztailaren 8ra, Bardozen**  
**Michel Molia eta Philippe Conord-en margoak.**

*Tokiko antolatzailea : Bardozeako Gaztetxea*

**Uztailean eta agorrilean, Izuran**  
**Uda erakusketa. Euskal Herriko 18 artisten obra berritsuenak.**

*Tokiko antolatzailea : Haize Berri*

**Uztailaren 17tik agorrilaren 31a arte, Uztaritzeko Lota Jauregian**  
**“Euskal Herriko elizak”. Henri Brosset-ek egin argazkiak.**

*Antolatzailea : Euskal Kultur Erakundea*

**Agorrilaren 1etik irailaren 15a arte, Hazparneko Eihartzea kultur etxean**  
**Dominique Trolliet-en margoak.**

*Tokiko antolatzailea : Eihartzea*

**Agorrilaren 5etik 31ra, Maulen**  
**Antton Mendizabalen eskulturak.**

*Tokiko antolatzailea : Uztaro / Uhaitza*

**Uztailaren 1etik irailaren 15a arte, Irisarri Ospitalean**  
**Bruno Aguerre margoak. Uztailaren 1ean : Gertakaria, Bruno Aguerre, Jean-Louis Hargous, Nagy eta Jean Poidevain-ekin.**

*Antolatzailea : Euskal Kultur Erakundea*  
*Laguntza berezia : Abbadia Adiskideak*

**Agorrilaren 5etik irailaren 11ra, Ezpeletan**  
**Erakusketa elkarrekilakoa. Gaia : “Musikaren inguruan”.**

*Tokiko antolatzailea : Begi Argi*

**Irailaren 17an, Donibane-Garazin**  
**Argazkilarien 3. Biltzarra. Argazki lehiaketa denei irekia. Gaia : Besta Euskal Herrian.**

*Tokiko antolatzailea : Argian*

**Urriaren 3tik 21era, Mauleko Ondarearen Etxean**  
**“Euskal Herrian Bizi eta Eraiki”.**

*Tokiko antolatzailea : Uhaitza*

**Azaroaren 3tik 30era Mauleko Ondarearen Etxean**  
**“Lurraren Ufakoa - Euskal Herriko arbolak”. Jean-Claude Brocaren argazkiak.**

*Tokiko antolatzailea : Uhaitza*

## □ ERAKUSKETAK □

### BERTSULARITZA

- **Otsailaren 6etik 13ra**, Donibane-Lohizuneko Ravel Lizeoan.  
Bisita gidatua, Etienne Etcheto eta Jakes Saraillet, euskal erakasleekin.

*Tokiko gomitatzaitzailea : Ravel Lizeoa*

- **Martxoaren 14etaik 31ra**, Donapaleuko Léon-Bérard kolejioan.  
Bisita gidatuak, Mathieu andereak eginik. Martxoaren 30ean, Daniel Landart eta Jean-Louis Lakaren mintzaldia.

*Tokiko gomitatzaitzailea : Berard kolejioa*

### “EUSKAL HERRIAN BIZI ETA ERAIKI” ERAKUSKETA

- **Martxoaren 20etik 26ra**, Miarritzeako “Le Colisée” gelan.  
“Bi harriz, lau xori” kultur astekari.

*Tokiko gomitatzaitzailea : Biarritz Culture*

- **Martxoan**, Hazparneko mediatekan.

*Tokiko gomitatzaitzailea : Hazparneko Herriko Etxea, Eihartzea, Ursuia kolejioa, Mediateka eta Turismo bulegoa*

- **Uztail eta agorrilean**, Donibane-Garaziko, Apezpikuen Presondegian.

*Tokiko gomitatzaitzailea : Donibane-Garaziko herriko kultura batzordea*

- **Irailean**, Mauleko Ondarearen Etxean.

*Tokiko gomitatzaitzailea : Uhaitza*

- **Abenduaren 15etik 18ra**, Bordeleko Euskal Etxean

*Tokiko gomitatzaitzailea : Bordeleko Euskal Etxea*

# ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ AHOLKU - FORMAZIOA GEROASMAKUNTZA

## HERRI HIZKUNTZAK

**Ekainaren 23tik 25era, Uztaritzeko Landagoien Zentruan,**

**Herrien arteko 5. Biltzarra**, hautetsi eta kultur arduradunen partaidetzarekin. Hona nongoak ziren ordezkariak : Alsazia, Bretania, Kortzika, Okzitania (Akitania, Midi-Pyrénées, Languedoc-Roussillon) eta Euskal Herrikoak.

Mintzagai nagusia zen : herri hizkuntzak : onarmen ofiziala eta herriaren nahia.

Hiru pondu landu dira mintzaldi eta eztabaidetan :

- onarmen ofiziala,
- berehalako onarmen publikoa,
- herrialdeen arteko lankidetza, erakunde, elkarreta eta sindikaten lanak hobeki kurutzaraziz eta garatuz.

*Antolatzailea : Euskal Kultur Erakundea*

## □ ANTZERKIA □

### — Euskal antzerki taller bat bigarren mailako Xalbador Ikastegian

Donostiako In fraganti taldekoa den Olatz Beobide antzerkilari profesionalak antzerki taller bat kudeatu du.

17 ikaslek (6. eta 5.ekoek) parte hartu dute. Ikastaldiaren bukaeran, emanaldi publiko bat antolatua izan da Kanbon, ekainaren 21ean.

*Tokiko antolatzaileak : E.A.T.B. eta Xalbador Ikastegia*

### — Urtarriletik martxora : “Petit théâtre de pain” konpainiaren egonaldia Izuran “1, 2 , 3 soleil” deitu sorkuntzaren bi emanaldientzat.

*Tokiko antolatzailea : Haize Berri*

## □ DANTZA □

Euskal Dantzarien Biltzarra federazioaren formazio egitaraua.

- Dantza erakaslen akademia (urte osoan),
- Dantzari ttiki-ren preparaketa, urtarilaren 8an,
- Uztaritzeko ihauteria, ohidura “ber-ikusia”, Anne-Marie Reynaud-en laguntzarekin, urtarilaren 12tik 15era,
- Erakasleentzat ikastaldia : Dantzari Dantza, Axuri Beltza, Zintza Dantza, urtarilaren 23an
- Bigarren dantza elgarretaratzea, martxoaren 4ean, Xiberun,
- Ikastaldia : Otxagabiako dantzak : martxoaren 11 eta 12an Baionan (Orai Bat),
- Dantzari Eguna-ren preparaketa, apirilaren 8an.

*Tokiko laguntzailea : Euskal Dantzarien Biltzarra*

## □ MUSIKA □

Iparraldean, Sara, Ortzaize, Izura eta Donpaleuko ikastoletan, musika taller programa bat abiatu da. Musika taldeka bizitzeko plazerra, kantua, ahotsa, gorputzaren bitartez.

*Tokiko antolatzaileak : Departamenduko Musika  
Zentro Ruralen Elkartea*

## □ INFORMAZIO - AHOLKU - DOKUMENTAZIOA □

Urte osoan zehar, Euskal Kultur Erakundeko lankideek jende anitz errezebitu eta kontseilatu dituzte, hala nola kasetari, ikerle, ikasleak bai eta ere edozein jende, hemengo edo kanpokoak, gure hizkuntzaz eta euskal kulturaz zerbaite jakin nahi zutenak.

Egunik ez da pasatu telefona ukaldi edo gutun bat eskuratu gabe, mota desberdinako itzulpen edo xehetasunak galduz.

**ERRANAK EGIN  
EGINAK ERRAN**

# Institut culturel basque, phase 2

**L**E makila offert à Ramuntxo Camblong par celui qui lui a succédé à la présidence de l'Institut culturel basque, Erramun Bachoc, était le passage de témoin entre deux phases bien différenciées de l'histoire de cet outil culturel.

Il a fallu le sens aigué du consensus et le pragmatisme de Ramuntxo pour qu'émerge, il y a quatre ans, le projet

porté par Pizkundea avec l'aval du ministère de la Culture face aux oppositions intransigeantes de certains potentiels locaux. Aujourd'hui, alors que l'institution est reconnue, que son équipe de permanents est au cœur de l'action culturelle de ce pays, Erramun Bachoc porte à merveille l'aspiration de la reconnaissance de l'aire culturelle basque, ainsi que la

légalisation de la langue et la culture basque. L'assemblée générale de samedi dernier, 4 mars à Garazi, témoigne de cette mutation, de l'adaptation de l'institut au paysage du Pays Basque sans cesse en mouvement. Au-delà de l'approbation



■ De gauche à droite: B.Auroy, maire d'Ustaritz, F. Maitia, maire d'Ispourre et conseiller régional, B. Lucas, directeur régional de l'action culturelle, F. Lemaire, sous-préfet, Cabrol, maire de Garazi, E. Bachoc, président de l'institut culturel basque, Txomin Hegi, directeur de l'I.C.B.

## «HITZ ETA SOLAS»

Uztaritze, Donibane-Lohizune eta Senperen

### EDITION EN BASQUE

## Une manne de 4 400 livres

*Le gouvernement basque en a fait don à 22 bibliothèques des trois provinces. Bon accueil assuré...*

SU-45/24/13



Jean Haritschelhar, Mari Carmen Garmendia, Erramun Bachoc et Txomin Heguy  
(Photo Christian Bordier)

## ‘Harrian Herria’, Iparraldeko ispilua

Euskal Kultur Erakundeak hiru urte behar izan ditu orain aurkeztu duen bideoa osatzeko

**D**uela hiru urte, Euskal Kultur Erakundeak bideo batzen grabaketa abiatu zuen ‘16 Arts Production’ Bordeleko bidegile sozietatearekin, Ipar Euskal Herriaren egoera aurkezteko. Ohiko iruditik urrun izateko nahikaria gauzatutu dute joan den ostiralean aurkeztutako 30 minutuko bideoarekin.



Etienne Gary zinemagilea eta Txomin Hegi EKEko zuzendaria aurkeztutako.

# Bi harriz, lau xorí

*La semaine culturelle de Biarritz*

**R**IHE semaine organisée par Biarritz culture et l'Institut culturel basque au Colisée de Biarritz. Le titre, tout en symbole, incitait les plus curieux à se déplacer vers cette salle qui devient petit à petit un lieu-référence pour la

## EUSKAL MUSIKA PARISEN

Maiatzaren 17-18.19 etan

- 17 an (la Sorbonne) : mintzaldia « Musikak eta Euskal-Herria, egoera eta geroa. »  
Partaide : Mixel Etxecopar, André Gabastou, Txomin Heguy, Alain Darré, Jean Marie Ecay...

### TRADITION

#### Dansons la cavalcade

*Co-produite par de nombreuses institutions basques et départementales, une exposition racontera de Garazi à Hendaye, l'histoire des cavalcades et autres Fête Dieu. Passionnant*

## India Beltzak a Garazi



Troupe de théâtre Xirixti Mirixti

La troupe de théâtre basque Xirixti Mirixti a vu le jour en 1982. Depuis treize ans, elle a joué cinq pièces de Lafitte, Landart ou Larzabal, s'ingéniant à faire connaître le répertoire basque dans les sept provinces et quand on sait que chaque pièce a été jouée une trentaine de fois, on comprend que Xirixti Mirixti ait acquis une renommée enviable auprès du large public qu'elle a touché depuis sa fondation.

Pour sa sixième création, la troupe dirigée par Eneko Olazagasti et Olatz Beobide nous propose *India Beltzak* (Les Indes noires), une pièce écrite par Pantzo Hirigaray

qui est aussi l'un des acteurs de la troupe depuis ses débuts.

L'auteur est bien connu des auditeurs de la station de radio d'Irligiko Irratia où il officie en tant que journaliste et animateur et où ses histoires d'Antton eta Maria ont connu un vif succès. Baigorriar de pure souche, Pantzo ne pouvait choisir un autre endroit que le château d'Etxaûz pour y faire dérouler son histoire. C'est à la salle Vauban de Saint-Jean-Pied-de-Port qu'aura lieu la grande première ce dimanche 15 octobre à 17h, mais plusieurs représentations sont d'ores et déjà programmées dans plusieurs villes ou villages du Pays Basque.

## HERRI UZTA 1995

### OHIDURAZKO MUSIKA ETA KANTUAREN LAUGARREN FESTIBALA

Pagoleta, Euskal Herrian bizi eta eraiki

## Axular eta euskara mugaz gainetik

Sara, Azkaine eta Zugarramurdi bateratu dira abenduan zehar hilabete kultural oportuna eskaintzeko

Kultur ekitaldiak partzuergoan Aldudarrak batasunaren helburua da ahal bezainbat mota guzietako ikusgarriak muntatzea bainan ez nola nahika. Hemendik goiti partzuergoan, erran nahi baita beste elkarteekin. Hala nola martxo huntan Nafarroako bertsu xapelketaren kanporaketa errezebitu den eta helduden urrian E.K.E.rekin antolatuko den Manex Pagolaren kantuekin kantaldi bat. Halaber antolatuko diren uda huntan bi-deo ikastaldiak bai eta ere antzerki ekitaldiak.

Hessia 95/03/23

## **ASSEMBLEE GENERALE**

Ustaritz, le 16 mars 1996

# ***INSTITUT CULTUREL BASQUE***

## **BILAN D'ACTIVITES**

**1995**

**E.K.E./I.C.B. - Château Lota - B.P. 6 - 64480 USTARITZ**

**Tél. 59.93.25.25 - Fax 59.93.06.84**

# SOMMAIRE

---

❖ <b>Rapport moral 1995</b>	
— Création	Page      4
— Diffusion	Page      8
— Initiation//Formation/ Prospective	Page      17
❖ <b>Rapport financier 1995</b>	Page      19

**Depuis cinq ans,  
au service de la langue  
et de la culture basques**

Créé en août 1990, l’Institut Culturel Basque est l’aboutissement d’un long processus de concertation entre les associations culturelles basques regroupées depuis 1981 au sein de la Fédération Pizkundea “Renaissance” et les pouvoirs publics.

Organe d’animation et de coordination pour la langue et la culture basques, son activité s’étend sur tout le Pays Basque Nord (provinces historiques du Labourd, de Basse-Navarre et de Soule situées sur le territoire français).

Subventionné par l’Etat (Ministère de la Culture), le Conseil Régional d’Aquitaine et le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques, l’Institut Culturel Basque s’appuie sur l’important partenariat du Syndicat Intercommunal pour le Soutien à la Culture Basque (créé aussi en 1990 et qui regroupe à ce jour 141 communes), ainsi que celui des 65 associations culturelles basques adhérentes.

L’Institut Culturel Basque intervient dans les domaines suivants : la promotion de l’euskara (la langue basque), la littérature et l’édition, le théâtre et le bertsularisme, la production audio-visuelle, le chant et la musique, le patrimoine, les arts plastiques. Il encourage l’action culturelle dans ses diverses dimensions : la création artistique, la diffusion, l’animation et la formation.

# L'ORGANISATION INTERNE DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE

---

## LE CONSEIL D'ADMINISTRATION (\*) :

### Les représentants du collège des associations adhérentes :

Monsieur Jakes ABEERRY, Monsieur Erramun BACHOC, Monsieur Peio CEDARRI, Monsieur Piarres CHARRITON, Monsieur Filgi CLAVERIE, Monsieur Pantxoa ETCHEGOIN, Madame Martine ETCHEBARNE, Madame Terexa SEGUIN.

### Les membres de droit :

#### a) Syndicat Intercommunal pour le Soutien à la Culture Basque

- Monsieur Renaud D'ELLISSAGARAY, Conseiller Municipal de Bayonne,
- Monsieur Peio SETOAIN, Maire des Aldudes.

#### b) Département des Pyrénées-Atlantiques :

- Monsieur Jacques COUMET, Vice-Président, Conseiller Général du Canton d'Hasparren,
